

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Aldatzea Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreen eta Zabalgunean erabilgarri dauden lokalak dinamizatzeko laguntzen deialdi publikoaren 2024rako oinarriak, horietan ezarritako eskaera-epea luzatzeko

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Halaber, indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2022-2024), zeina Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen, "Merkataritzako enpresa txikiak, zerbitzu pertsonalak eta ostalaritza ezarri eta modernizatzeko laguntzak" ildoaren barruan daude jasota Alde Zaharreen eta Zabalgunean erabilgarri dauden lokalak dinamizatzeko laguntza hauek. Horretarako, plana aldatu egin zen 08_09_v02 fitxaren bidez (2024ko uztailaren 2an onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak).

2024ko uztailaren 2an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreen eta Zabalgunean erabilgarri dauden lokalak dinamizatzeko laguntzen deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak 2024. urterako.

Deialdi hori Vitoria-Gasteizko merkataritza- eta ostalaritza-sektorearen lehiakortasunari laguntzeko helburu estrategikoaren barruan sartzen da, eta 2024an Alde Zaharreko eta Zabalguneko merkataritza-lokalen okupazioa sustatzea du helburu.

Udal aurrekontuetako "aretoak dinamizatzeko laguntzak" 2024/0822.4314.48969 partidaren kontura finantzatu dira deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak. Zuzkidura 200.000,00 eurokoa da.

Merkataritza Zerbitzuko buruak 2024ko irailaren 20an egindako txostenean, deialdiaren oinarrietan eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzatzea proposatu du, zehazki, 2024ko azaroaren 5era arte. Txostenean hauxe argudiatu du, laburbilduz: "kontuan hartuta orain arte jasotako eskabide kopurua eta eskabide horiei erantzuteko dagoen gaitasun ekonomikoa, egokitzat jo da eskabideak aurkezteko epea luzatzea, dossier gehiagori erantzun ahal izateko."

Deialdi honen helburu diren laguntzek funts publikoak dohain erabiltzen dituzte, eta, beraz, dirulaguntza publikoen izaera eta araubide juridikoa dute, eta lege hauen mende daude: dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zk.); Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak aipatutako legea garatzen duen erregelamendua (DLOE) onesten baitu.

DLOEren 70.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, "dirulaguntza ematen duen organoak justifikaziorako ezarritako epea luzatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan horren kontrako agindurik eman ezean, betiere, epearen erdiari dagokiona baino gehiago ez bada luzapena, eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie."

Halaber, DLOEren 70. artikulua 2. apartatuaren arabera, justifikazio-epea luzatzeko baldintzak eta prozedura Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APEL) 32. artikuluan ezarritakoak dira. Zehazki, APELen 32. artikulua 1. apartatua hau xedatzen du: "Komenigarritzat jotzen bada eta besteren esku-bideei kalterik egiten ez bazaie, administrazioak, bere kabuz edo interesdunek eskatuta, luzatu egin dezake ezarritako epea, beste arauen batek aurkakorik ez badio. Epearen erdia luza dezake, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie."

Era berean, kontuan hartu behar da APELen 32. artikulua hirugarren apartatua, hau baitio: "Interesdunen eskaera eta luzapenari buruzko erabakia, nolahi ere, dagokion epea amaitu baino lehen egin behar dira. Ezin da inoiz luzatu amaituta dagoen epea"

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da dirulaguntza hori arautzen duten oinarrietan ez dela jasotzen eskabideak aurkezteko epea luzatzea eragozten duen agindurik.

Administrazio Zerbitzuko buruak epea luzatzearen aldeko txostena egin du 2024ko irailaren 20an.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta deialdien baldintzak onesteko eskumena, bai eta, beharrezkoa izanez gero, baldintzak aldatzeko ere, bere egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa garatzea, eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa gauzatzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127.1.g) eta 2. artikulua — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan — eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 8.1. artikulua finkatutakoaren ildotik.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3, 18, eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdia eta beharrezko informazioa Datu Base Nazionalean eta ALHAOn inskribatu behar da.

Azaldutakoa kontuan hartuz, onesteko eskatzen diren legeko betekizunak betetzen direla egiaztaturik, eta eskumenak eskuordetzei buruzko 2023ko ekainaren 22ko akordioa dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariek erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehenengoa. Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrean eta Zabalgunean erabilgarri dauden lokalak dinamizatzeko laguntzak arautzen dituzten berariazko oinarrien aldaketa hauek onestea. Dirulaguntza horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko uztailaren 2ko erabakiaren bidez onartu ziren. Hona hemen xehetasunak:

9. oinarrian (eskabideak aurkezteko epea eta bideak):

Honela dioen lekuan: "9.2. Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta aurtengo irailaren 30ean amaituko da."

Honela behar du: "9.2. Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta aurtengo azaroaren 5ean amaituko da."

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta udalaren webgunean argitara dadila agintzea, ebatzitakoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean jasota utzi ondoren.

Hala ere, zuek erabakiko duzue egokien deritzozuen.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 27an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
MARÍA NANCLARES CABALLERO